Gsef

BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL ECONOMY FORUM

EUSKALDUNA CONFERENCE CENTER

**URRIA 1-3, 2018**

Gizarte-ekonomia eta hiriak

# Tokiko garapen inklusiborako eta iraunkorrerako balioak eta lehiakortasuna

www.gsef2018.org

Bilbao

# GSEF 2018ren laburpena

*GSEF 2018 – Ekonomia Sozialaren Foro Globala, hain zuzen ere, Global Social Economy Forumen (GSEF) laugarren edizioa da. Nazioarteko topaketa handi hori Seul hirian egin zen lehenengoz 2013. urtean. Bigarren edizioa 2014an egin zen Seulen. Bertan, GSEF tokiko gobernuak eta gizarte zibileko eragileak biltzen zituen nazioarteko elkarte iraunkor gisa finkatu zen, eta ekonomia sozial eta solidarioa aitortu zuen tokiko garapen ekonomikorako funtsezko faktore gisa.*

*2015ean Bilbo ere GSEF sareko kide egin zen.*

*Hirugarren edizioa 2016an egin zen Montreal hirian, eta bertan ofizialki jakinarazi zen Bilbo izango zela GSEF2018ren egoitza.*

*2017ko otsailean eratu zen Tokiko Batzorde Antolatzailea. Hain zuzen, organo horrek diseinatu zuen GSEF2018, Ekonomi Garapen, Merkataritza eta Enplegu Sailaren gidaritzapean eta GSEFekin harreman estua izanda. Batzorde hori erakunde publikoek eta gizarte ekonomiako ordezkari diren erakundeek osatzen dute.*

# **GSEF2018ren Tokiko Batzorde Antolatzailea administrazio publikoek** eta **gizarte ekonomiako eta ekonomia solidarioko eragileek** osatzen dute.

- **EHLABE Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea**
- **KONFEKOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa**
- **ASLE Euskadiko Lan Sozietateak**
- **GIZATEA Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea**
- **SAREEN SAREA Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala**
- **REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareen Sarea**
- **EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea**
- **Bilboko Udala**
- **Bizkaiko Foru Aldundia**
- **Eusko Jaurlaritza**
- **Arrasateko Udala**

**Euskalduna Jauregian** izan zen, urriaren 1etik 3ra arte

**Foroaren gaia Tokiko Batzorde Antolatzaileko kide guztien artean adostu zen:**

**Gizarte ekonomia eta hiriak.**

# Balioak eta lehiakortasuna tokiko garapen inklusiboa eta jasangarria lortzeko

Tokiko Batzorde Antolatzailearen instituzio eta erakundeez gain, GSEF2018n paper garrantzitsua jokatu dute Euskal Herriko Unibertsitateak, Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak

# NAZIOARTEKO DEIALDIA

2017ko abenduaren 20tik 2018ko martxoaren 23ra arte nazioarteko deialdi bat ireki zen gizarte ekonomiari buruzko proiektuak edo ekimenak aurkezteko

→

Guztira, **64 herrialdetako 560 ekimen** jaso ziren

# EGITARAUA

- **Bost osoko bilkura;** horietan 31 pertsona entzutetsuk hartu dute parte: tokiko agintariak, Europako Batzordeko ordezkariak eta gizarte ekonomiako nazioarteko sare eta erakundeetakoak. Horiek guztiak lau kontinentetatik etorri ziren gizarte ekonomiari buruzko lekukotzak azaltzeko eta eztabaidatzeko; zehazki, gizarte ekonomiak garapen sozial eta ekonomiko bidezkoago eta jasangarriago bat bultzatzeko duen ahalmenari buruz aritu ziren.
- Bederatzi lan saiotan banatutako **29 tailer** izan dira, eta horietan **102 ekimen** aurkeztu dira. Horiek nazioarteko deialdian jasotako ia 600 ekimenen artetik hautatu dira. Aurkeztutako ekimenen erdia baino gehiago tokikoak izan ziren.
- **Lau tailer** tematiko, **GSEF** sareak berak antolatutakoak.
- **Europako Batzordeak** antolatutako **bi tailer**.
- **Nazioarteko erakundeek** antolatutako **zazpi tailer:** LANE, ELGA, UNRISD, Fair Trade/WTO, RIPESS, UCLG, INAISE.
- **Poster formatuan** aurkeztutako **37 ekimen**.
- **11 bisita tekniko:** Guztira, **495 pertsonak** parte hartu zuten, eta gizarte ekonomiako tokiko **32 enpresa** bisitatu ziren.
- **Hiru ekimen paralelo, GSEFeko bazkideek antolatutakoak,** eta Europako **bi txostenen aurkezpena.**

# PARTE HARTZEA

**1.664 pertsona,75 herrialde** eta
**327 hiritatik** etorritakoak.

## TIPOLOGIA

- % 60 gizarte ekonomiako sare eta erakundeetako ordezkariak
- % 18 tokiko gobernuetako ordezkariak
- % 10 gizarte zibileko ordezkariak
- % 6 unibertsitateetako ordezkariak
- % 6 bestelakoak (prentsa...)

## JATORRIA

- % 39 estatutik
- % 30 Europatik
- % 15 Asiatik
- % 6 Ipar Amerikatik
- % 5 Afrikatik
- % 5 Latinoamerikatik

# EKARPEN SOLIDARIOA

Bidaia gastuetarako 43

beka eman zitzaien

hizlariei

118 hizlariri

eman zitzaien

ostatu

# KOMUNIKABIDEEN ESTALDURA

Gizarte Ekonomiaren Munduko Foroaren IV. edizioak (GSEF 2018) oihartzun handia izan du hainbat komunikabidetan, bereziki prentsa idatzian, irratian, telebistan, Interneten eta sare sozialetan. Hala, tokiko komunikabideek luze eta zabal jorratu dute ekitaldia, eta zabalkundea areagotu dute.

Era berean, Tokiko Batzorde Antolatzailea osatu zuten erakundeek zein foroan nola edo hala parte hartu duten beste erakunde batzuek beren webguneen bidez zabalkundea egin diote GSEF2018ri. Horietako asko nazioarteko erakundeak direnez (RIPESS, Social Economy Europe, Europar Batasuna, CGLU, REVES, eta abar), foroaren nazioarteko zabalkundea areagotu egin da.

# GSEF 2018n parte hartu duten NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

- YOUNG FOUNDATION
- ASHOKA
- Bidezko Turismoaren Munduko Erakundea
- EMES International Research Network
- Seoul Metropolitan Government
- United Nations Research Institute for Social Development
- European Economic and Social Committee
- CEPES
- RIPESS
- REVES NETWORK
- UNRISD
- ELGA

- EUROPAKO BATZORDEA
- SOCIAL ECONOMY EUROPE
- MUNDUKO BANKUA
- UCLG
- EUROCITIES
- LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA
- METROPOLIS
- ICLEI Local Governments for sustainability
- INAISE

# HURRENGO EDIZIOA
# GSEF2020

GSEF2018ren itxiera ekitaldian ofizialki jakinarazi zen hurrengo edizioaren **GSEF2020** egoitza honako hau izango dela:

**MEXIKO HIRIA**